

45. HEINEKEN JAZZALDIA

Hizkuntza erabileraren neurketa

donostia**kultura**.com
San Sebastián, ciudad de la cultura

45  **Heineken®**
JAZZALDIA

uztaila 21-25 julio 2010
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN



Donostiako Euskaltzaileen Elkartea

Katalina Eleizegi kalea, 36-behea. 20009 Donostia
Tel: 943467181- Fax: 943446532- e-mail: bagera@bagera.net

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1.1. Lan metodologia

2. Idatzizko materiala

2.1. Jazzaldiaren aldizkaria

2.2. Esku egitaraua

2.3. Behin-behineko (“aurrerapen” esku egitaraua)

2.4. Prentsa oharrak

2.5. Web orria

2.6. Jazzaldiko kartela

2.7. Bestelakoak: Paisai linguistikoa,...

3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpenaren prentsaurrekoa

3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

3.3. Bestelakoak

4. Ondorioak

1. Sarrera

1998. urtean BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta, orduz geroztik, urtero aztertu du musika jaialdia. BAGERAk Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldiak diren neurrian, ahozko hizkuntza erabilera, saioen aurkezpenetan eta prentsaurrekoetan erabiltzen dena mugatzen da. Idatzizko materialean berriz, esku liburu, kartel, pasai linguistiko eta abar hartzen dugu kontuan.

Donostian egiten diren beste ekintza batzuetan bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntza aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua ezagutu asmoz.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute.

1.1. Lan metodologia

Denetara 7 lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabileraren eta idatzizko materiala aztertuz.

Behatzaileekin Jazzaldia hasi aurretik bildu gara eta egitaraua eskutan, bakoitza zein emanaldira joango den zehaztu dugu. Fitxa betetzeko argibideak eman dizkiegu eta Jazzaldia amaitutakoan, aipatutako fitxak bildu ditugu. Azkenik, bildutako datuekin txosten hau osatu dugu.

Ohar modura esan, txostenean bi eletan edo bi hizkuntzetan esaten denean, besterik zehaztu gabe, euskaraz eta gazteleraz esan nahi duela.

2. Idatzizko materiala

2.1. Jazzaldiaren aldizkaria

Jazzaldiari buruzko informazioa luze zabalean azaltzen den liburuxka da. Musikari eta talde bakoitzaren berri ematen da. Aurtengo edizioak 60 orrialde ditu.

Azalean, 2010eko kartela azaltzen da. Data elebitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eta 45 Heineken Jazzaldia jartzen du. Prezioa ere elebitan dago. Azken orrialdean iragarki bat ageri da, Heineken-ena eta gaztelania hutsean dago.

Sarrera –Odon Elorza alkatearen idazkia– elebitan idatzita dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eta hitzez-hitzezko itzulpena da, euskaraz eta gaztelaniaz informazio bera azaltzen baita.

Liburuxka honetako atal desberdinetan egunez egun dauden ekitaldietan parte hartuko duten abeslari eta taldeei buruzko azalpenak datoz, informazio guztia –biografiak, egitaraua, Donostiako Jazzaldia Saria, Catalunya & Heineken Jazzaldia, Gaueko Autobus Zerbitzua, Argibide Orokorrak– elebitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz. Agertokien kokapen maparen kasuan, izenak gazteleraz bakarrik azaltzen dira (Plaza Trinidad, Playa de la Zurriola, Victoria Eugenia oficina del festival...

Iragarkiekin ez da testuarekin bezala gertatzen eta gaztelania da hizkuntza nagusia, bai egitarau osatuaren liburuxkan.

Gaztelania hutsezko iragarkiak: (10)

2.or. Magnum
12.or. Cuadernos de Jazz
14.or. Nordic Mist
16.or. Cadena Ser
18.or. Distrito Jazz
22.or. DGTV
56.or. Fnac
59.or. Pago
54.or. Kaspersky
60.or. Heineken

Euskara hutsezko iragarkiak: (0)

Euskaraz eta gaztelaniaz dauden iragarkiak: (9)

6.or. El Diario Vasco

8.or. Skoda Auto

10.or. Kutxa

20.or. El Corte Inglés (Testua bielelan, iragarkia gaztelera)

38.or. Universal Jazz

40.or. Universal Jazz

50.or. Jazz Getxo (gaztelera nagusi)

51.or. Jazz euskadi (gaztelera nagusi)

52.or. Donostia 2016

2.2. Esku egitaraua

Sakelan eramateko egitarau laburtuari dagokionez, aurrean Jazzaldiko kartela bielelan azaltzen da eta atzean antolatzaile, babesle eta laguntzaileen logoak. Esku orria zabaltzerakoan agertokiaren plano dago, lekuen izenak gaztelera hutsez azaltzen direlarik (Playa da la Zurriola, Victoria Eugenia Oficina del festival, Plaza Trinidad...). Esku orria guztiz irekitzean, Jazzaldiaren egitaraua dago, informazio guztia bielelan irakurri daitekeelarik.

2.3. Behin-behineko (“aurrerapen”) esku egitaraua

Lehenik eta behin esku egitarauaren azpi izena, euskarazko aldean, ez dugu oso egoki ikusten, “behin-behineko egitaraua” jarri beharrean “aurrerapen egitaraua” jartzea zuzenagoa dela iruditzen zaigu (gaztelera aldea “avance de programa” delako).

Gainontzean, esku orria alde batean datak, egunak eta agertokiak, orrialdearen alde batean euskaraz irakurri daitezke eta beste aldean gaztelera.

2.4. Prentsa oharra

BAGERAn, posta elektronikoko bidez 48 mezu jaso ditugu; hauetatik 44, bielelan jasoak izan dira (lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelera), aipatu beharra dugu, kasu batzuetan, atxikitako dokumentua euskaraz zenean ...eus.doc jartzen zuela, gaztelera aldea ...doc bakarrik jartzen zuelarik. 2 ohar gaztelera, eta bi buletin bielelan (lehenengo gaztelera eta ondoren euskaraz).

Aurrerapen egitarauaren aurkezpenean banatutako materialean USB bat banatu zuten. Honek, Jazzaldiko kartela, argazkiak, kantari eta taldeen abestiak, artisten biografia, egitaraua eta aldizkaria biltzen ditu. Guztia, euskaraz zein gaztelera aldea azaltzen da, baina kartelaren eta aldizkariaren karpeten izenak gaztelera aldea bakarrik azaltzen dira: “Cartel Heineken Jazzaldia 2010” eta “revista Heineken Jazzaldia”.

Bestalde, CD bat ere banatu zuten kantari eta artisten musikarekin.

2.5. Web gunea

www.jazzaldia.com web gunea:

Aurtengo Jazzaldian webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuan aukeratua duen hizkuntzan irakur daiteke (iaz bezala).

Oro har, hizkuntzen arteko oreka behar bezala mantentzen da webgunean. Hala eta guztiz ere, hutsune bakan batzuk daude:

- Publizitate bannerrak, Heineken (videos, noticias) eta Amovens (comparte coche) iragarkiak gaztelera hutsean daude. Bestetik “Sarrerak salgai” bannerrean klikatuta Kutzako orrira eramaten zaitu, gaztelera hutsez dagoelarik. Hip hop lehiaketarako iragarkia bielelan badago ere, gainean klikatu ezkerro, datuak sartzeko orria gaztelera hutsean dago. Kartel lehiaketarekin berdintsu gertatzen da, banerra bielelan badago ere, informazioa gaztelera hutsean irakur daiteke.
- Zuzendariaren bloga: gaztelania hutsez dago bakarrik. Bai euskarazko bertsioan, zein, gazteleraazkoan.
- Berrietan puri purian ataelean ere berriak gaztelera bakarrik irakurri daitezke.
- Prentsa ataelean, Jazzaldiko helbidea gaztelera dago “Teatro Victoria Eugenia, Reina Regenta, 8.
- Azkenik, “ekitaldien egutegian” izenburua gaztelera azaltzen da “Eventos” eta “tokiko taldeak” ataelean klikatu ezkerro “grupos locales”.

2.6. Jazzaldiko kartela

Aurtengo Jazzaldia iragartzeko kartelean, azaltzen den informazioa laburra bada ere, euskaraz eta gaztelaniaz dago.

2.7. Bestelakoak

Kursaaleko bi kuboen artean dagoen plazatxoan, Heineken Karparen ondoan Kataluniako turismoa sustatzeko hainbat agertoki jarri ziren. Hauetan banatzen ziren euskarrietan edota karteletan ez genuen euskarazko idatzirik topatu.

Trinitate enparantzako Publizitate panel digitala hizkuntzarik gabekoa zen, hau da, Jazzaldian parte hartutako musikari eta taldeen izenak irakur

zitezkeen bakarrik. Ez zen duela bi urte bezala, bestelako iragarkirik azaltzen. Aurten Kursaalaren kanpoaldean ez da inolako pantaila digitalik ezarri.

Zurriolako hondartzako Agertoki Berdeari dagokionez, eszenatokiaren goiko aldean “Escenario Verde” irakur zitezkeen gazteleraz bakarrik. Gainera, aurreko bi urteetan ez bezala, aurten ere pantailatxoak ezarri dute eszenatokiaren goiko aldean; bertan, Agertoki Berdean jotzekoak ziren taldeen izenak agertzen ziren, bestelako azalpenik gabe. Aipatu eszenatokiaren barruan, beste pantaila handi bat ezarri zuten. Bertatik, kontzerturik ez zegoen uneetan mota ezberdinetako mezuak igortzen ziren, lau hizkuntzatan; aurrena euskaraz eta gazteleraz eta ondoren ingelesez eta frantsesez. Pantaila horretatik, Donostia 2016ko promozioa iragarkia botatzen zuten, behin eta berriz.

Bai Zurriola inguruko nola Trinitate enparantzako salmenta puntu ofizialetan, salneurrien berri ematen zuten kartel edo esku orriak bieleetan edo hirueletan (euskaraz, gazteleraz eta ingelesez) idatziak zeuden. Zurriola inguruko salmenta puntu batzuetan, zenbait karteltxo lau hizkuntzatan ere irakurri ahal izan dira (frantsesez). Saltoki hauetako langileei dagokionez, gehienek euskaraz ulertzeko gaitasuna zuten.

Okendo plazan, Victoria Eugenia eraikinean Jazzaldiko informazio-bulegoa egon zen. Bertako 4 langileekin hitz egiteko aukera izan genuen eta guztiekin euskaraz hitz egiteko aukera izan dugu.

3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

3.1.1. Jazzaldiaren aurkezpenaren prentsaurrekoa.

Apirilaren 14an egin zuten **45. Heineken Jazzaldiaren** prentsaurrekoa egitarauaren xehetasunak aurkezteko. Prentsaurrekoa **Donostiako Udaletxeko Gobernu Batzordearen Aretoan izan zen**. Bertan parte hartu zuten: **Odón Elorza** (Donostiako alkatea), **Denis Itxaso** (Gazteria eta Kultura zinegotzia) eta **Miguel Martín** (Heineken Jazzaldiko zuzendaria eta Donostia Kulturako Musika Programazio zuzendaria). Denis Itsasok eman zion hasiera, sarrera bat euskaraz egin ostean beste azalpen guztiak gazteleraz izan ziren. Ondoren Miguel Martinek hartu zuen hitza eta bere mintzaldi osoa gazteleraz izan zen. Azkenik Odon Elorza aritu zen, nahiz eta sarrera euskaraz egin gehiengoa gazteleraz azaldu zuen, galdera tartea gazteleraz zabalduz. Oro har prentsaurrekoa gazteleraz izan zen.

45. Heineken Jazzaldiaren behin betiko egitaraua, ekainak 24, goizeko 11:30ean, Victoria Eugenia Antzokiko Txina Aretoan aurkeztu zen. Denis

Itxaso Kultura eta Gazteria zinegotziak, Miguel Martin Heineken Jazzaldiko zuzendariak eta Jesus Torquemadak programazioaren azken berriak ezagutarazi zituzten. Halaber, Jazzaldiaren babesle diren erakunde eta enpresetako ordezkariak ere egon ziren bertan.

Torquemadak bieletan egin bazuen ere, gaztelania gailendu zen, ondoren Heinekeneko ordezkariak gaztelera egin zuen bere azalpena. Jarraian Denis Itxasok hartu zuen hitza eta gaztelera eta euskara tartekatu bazuen ere gaztelera egin zuen gehien bat. Berrikuntzen inguruko azalpena gaztelera egin zuten bakarrik Denis Itxasok eta Miguel Martinek. Bukatzeko kartelaren egilea aurkeztu zuen Denise Itxasok gaztelera eta egileak ere gaztelera hutsez egin zuen bere parte-hartzea. Prentsaurrekoa orokorrean hartuta gaztelera gailendu zen nabarmen.

3.1.2. Beste prentsaurreko batzuk

Gainontzeko prentsaurrekoetan, oro har gaztelera izan da nagusi. Normalean Jesus Torquemadak sarrera bieletan egiten bazuen ere, aurreko prentsaurrekoen eskema bera jarraitzen zuten. Aipatu beharra dugu Hotel Costa Vascan uztailaren 21ean egin zen prentsaurrekoa. Bertan Jesus Torquemada eta Mari Boine egon ziren. Torquemadak euskaraz eta gaztelera egin zuen aurkezpena eta zuzenean galdera tarte ireki zuen. Galdera gehienak gaztelera egin ziren eta Torquemadak ingelerara itzultzen zituen, Mari Boninek ingelesez erantzun eta itzulpena gaztelera. Momentu batean euskara eta euskal kulturaren inguruko galdera bat egin zuten gaztelera eta Mari Boinek erantzun ondoren Torquemadak kazetariari galdera bera euskaraz egin zezan eskatu zion, Boinek, euskara entzun zezan. Honen ondoren, beste kazetari batek euskaraz egin zuen bere galdera eta Torquemadak ingelesera itzuli, Boinek ingelesez erantzun eta Torquemadak Boineren erantzuna gaztelera itzuli zuen.

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

Behatutako kontzertuen aurkezpenak bieletan izan ziren eta lehenbizi euskaraz eta ondoren gaztelera.

Gehien-gehienetan, aurkezpenaren lehen zatia euskaraz eta bigarrena gaztelera egin ostean, “zuekin...”.

Uztailaren 22an Victoria Eugenia Antzokian Arturo Sandovalak emandako kontzertuak ez zuen aurkezpenik izan.

Trinitate enparantzako kontzertuetan, lehen kontzertuko aurkezpena euskaraz hasi eta amaitzen bazuten ere, lehenengo eta bigarren kontzertuen artean, gaztelera gehixeago egiten dute.

Uztailaren 22an, Trinitate enparantzan Jazzaldiko Zuzendariak Sari Berezia eman zion Ron Carter kontrabaxu jole Estatubatuarrari. Zuzendariak gazteleraz egiten zuen bitartean, Jesus Torquemadak ingelesera itzultzen zion Carterri.

3.3 Bestelakoak

Kurssaleko Auditorioan, Ganbera Aretoan zein Victoria Eugenia Antzokiko sarreretan zeuden langileen artean, gehiengoak euskaraz erantzuteko gaitasuna erakutsi zuten.

4. Ondorioak

Aurreko ekitalditik hainbat hobekuntza topatu ditugun arren, oraindik beste hainbat akats errepikatzen dira. Hobekuntzak webgunean eta paisai linguistikotan topatu ditugu. Bestetik, akats nagusiak iragarleen hizkuntzan eta prentsaurrekoetan topatu ditugu.

Idatzizko hizkuntza

Idatzizko materialean, hau da, Jazzaldiaren egitarau osatuan, orrialdeko egitarauan, paisai linguistikotan, prentsa oharretan eta abar, elebitasuna nagusi da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Bi eletan dauden testuak (euskaraz eta gaztelera), bata bestearen itzulpen literalak dira, eta beti, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita daude.

Aurrerapauso batzuk izan dira, bestetik, hainbat akats ere izan dira:

- Egitarau osatuan eta oro har idatzizko materialean azaltzen diren iragarle etxeen iragarki gehienak gaztelera hutsez daude. Hemeretzi iragarle etxe daude, horietatik hamarrek gaztelera bakarrik erabili dute euren iragarkietan.

- Bageran, jasotako prentsa oharra bi eletan jaso ditugu, hala ere, bi buletin gaztelera hutsean jaso dira.

- Web orriari dagokionez, aurten iaz bezala, norberak bere ordenagailuan aukeratuta duen hizkuntza aukeratu egiten du jazzaldiko webguneak. Bestalde, zuzendariaren bloga, berrietan puri purian atalean, prentsa atalean, Jazzaldiko helbidea, eta “ekitaldien egutegian” izenburua gaztelera daude. “Eventos” eta “tokiko taldeak” atalean klikatu ezker “grupos locales” ere gaztelera hutsez daude idatzita.

Ahozko hizkuntza

Ahozko hizkuntzari dagokionez, aurkezpenak egon diren gehienetan elebitasuna mantendu da. Azken orduko oharren bat ere izan denean bi eletan jaso dugu. Bestetik, prentsaurrekoetan euskararen erabilera oso urria izan da, baita udal ordezkariak izan direnean ere.

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra izan arren, oro har elebitasuna mantendu delako bai ekitaldien aurkezpenetan baita idatzizko materialean ere, hainbat akats ere badira. Beraz, jazzaldiko antolatzaileak gonbidatu nahi ditugu, kontuan har ditzan aipatutako akatsak datorren edizioari begira.

Azkenik, BAGERAK Jazzaldiko antolakuntzari eskerrak eman nahi dizkio gure lana egiteko ematen diguten laguntzarengatik eta aurrerantzean euskararen aldeko lanean laguntzeko prest izango gaituztela gogorarazi nahi diegu.